

KIMIKA FAKULTATEAREN 50. URTEURRENA

Urtarrileko Jardueren Laburpena



Prensaurrekoa: urtarrilak 9.

Kimika Fakultatearen 50. Urteurrenaren hasiera urtarrilaren 9an gauzatu zen, leku pribilegiatu batean: Victoria Eugenia Antzokian. Prensaurrekoan Agustin Erkizia Gipuzkoako Campuseko errektoreordeak, Jon Insausti Kultura, Euskara eta Turismo zinegotziak eta Jon Mattin Matxain Kimika Fakultateko dekanok parte hartu zuten. Bestalde, Kimika Fakultateetik sortu ziren lau ikerketa zentroetako ordezkariak bertaratu ziren gonbidatu gisa. CFMtik Celia Rogero, CIDETECetik Soledad Larrocha, DIPCTik Ricardo Díez Muiño eta POLYMATetik David Mecerreyes. Bukatzeko, Eunate Izagirre Ernest Lluch Kultur Etxeko zuzendaria ere bertan izan zen.



Prensaurrekoak komunikabide desberdinetan izan zuen oihartzuna, hala nola [UPV/EHUko CAMPUS aldizkaria](#), [Diario Vasco](#), [Noticias de Gipuzkoa](#), [Donostitik \(Donostiako egunkari digitala\)](#), [Europa Press](#), [Donostia Kultura](#) edo [Industria Química](#).

Komunikabide gehiagoren arreta ere bereganatu zuen prentsaurrekoak. Modu honetan Fakultatearen historiaren inguruan zein 50. urteurrenaren egitarauaren inguruan elkarrizketa luzeagoak gauzatu ziren [Naiz-Gara](#) eta [Radio San Sebastián Cadena Ser](#) komunikabideetan, hurrenez-hurren.

Ospakizun bateratua: Bergarako Laboratorium Museoak 10 urte

Bergaran kokatutako Laboratorium museoak 10. urteurrena ospatuko du 2025ean. Euskal Herriko Kimikaren leku enblematikoa da, lehen euskal laborategi kimikoa izan baitzen. Euskal Herriaren Adiskideen Elkarteak bultzatuta, euskal kimikaren lehen mugarria bizi izan zuen Laboratoriumak: Wolframioaren isolamendua. 2025ean zehar, Fakultateak eta Laboratoriumak jarduera bateratuak partekatuko dituzte, datozen asteetan aurkeztuko direlarik. Hau dela eta, Fakultateak bere 10 urteak ospatzeko Laboratorium programaren aurkezpeneko prentsaurrekoan parte hartu zuen gonbidatu gisa, Euskal

Herriko beste eragile zientifiko batzuekin batera: Jakiunde, DIPC, Eusko Jaurlaritzako ordezkariekin, Emakumeak Zientzian, etab, [Diario Vasco](#) edo [Bizkaie](#)ko artikuluetan irakur daitekeen moduan.



Zientzia Zabalkuntza Jarduerak

12 Hilabete – 12 Gai

Hilero, Fakultatearen jarduerarekin lotutako dibulgazio-gai bat izango dugu Fakultatean. Urtarrilean “Materialen kodeak deszifratzen” izan zen gaia. Ekimen honen baitan, hilero jarduera desberdinak burutuko dira.

Zabalkuntza Bideoak: Aipatutako jardueretako bat Fakultatearen jarduerak sustatzeko zabalkuntza bideoak egitea da. UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko CIDIREko langileek egindako bideo hauek Fakultateko Vimeo kanalean argitaratuko dira. Urtarrileko bideoa [esteka](#) honetan ikus daiteke.

UPV/EHUko Kultura Zientifikoko Katedraren blogak: Beste jarduera bat UPV/EHUko Kultura Zientifikoko Katedraren blogetan artikulua argitaratzea da. Lanak Zientzia Kaiera euskarazko blogean eta gaztelaniazko Cuaderno de Cultura Científica blogean argitaratuko dira. Azkeneko hau [hemen](#) irakur daiteke.

Irratsaioak: La Mecánica del Caracol bezalako irratsaioak izango dira Fakultateko jarduerak zabaltzeko beste kanal bat. Urtarrileko gaia mintzagai izan zen Eva Caballerorekin batera Radio Euskadin, eta elkarrizketa [esteka honetan](#) entzun daiteke


Hitzaldi Zikloa Donostia Kulturarekin: Hilabeteko gaiaren lotuta, udako hilabeteteetan ezik "50 Urte Kimika Zabaltzen" hitzaldi zikloa burutuko da. Donostia Kulturarekin batera antolatuta Ernest Lluch Kulturetxean. MFZko komunikazio arduradunak, Idoia Mugikak, aurkeztuko du zikloa. Lehenengo hitzaldia urtarrilaren 14an eman zuen Pedro Miguel Etxenik, "Ciencia. Futuro. Belleza" izenburua zuelarik. Arrakasta itzela izan zuen ekitaldiak, gelaren aforoa %100 bete zen (160 pertsona), ikusle batzuk kanpoan geratu behar izan zirelarik.



Zabalkuntza – Orientazio Jarduerak

Bisita gidatuak

2025ko hilabete guztietan, udako hilabeteetan ezik, bisita gidatuak burutuko dira Fakultatean. Egutegi osoa beheko irudian ikusgai dago.



Urtarrilaren 29an Donostiako La Asunción ikastetxetik 41 ikasle eta 2 irakasleren bisita izan genuen. Jardunaldi honetan jarraitutako programa ondoren ikus dezakezue.

KIMIKA
FAKULTATEA
FACULTAD
DE QUÍMICA

50 URTE
AÑOS
somos
KIMIKA
gara

#kiffadossio
Kimika Fakultatearen
50. Urteurrena

Bisita Gidatuak

2025ko Urtarrila

Egutegia

urt	TRANSFERENTZIA	IKERTETA
ots		
mar		
api		
mai		
eka		
uzt	DIBULGAZIOA	ORIENTAZIOA
abu		
ira		
urr		
aza		
abe		

PROGRAMA

9:30: Ongi etorria eta aurkezpena
Kimika Fakultateko Ekitaldi Aretoa

1 Taldea
9:50: Esperimentua Kimika Analikoko Laborategian
Semaforo kimikoa
10:40: Ikerketa Laborategiaren bisita
Kimika Ezorganikoa
11:00: Azpiegitura Laborategiaren bisita
Gainazalen elektrokimika

2 Taldea
9:50: Esperimentua Biologiako Laborategian
DNAren erazketa
10:40: Ikerketa Laborategiaren bisita
Katalisi Bioinorganikoa
11:00: Azpiegitura Laborategiaren bisita
Polimeroen Teknologia

3 Taldea
9:50: Azpiegitura Laborategiaren bisita
Elektroi erresonantzia paramagnetikoa
10:10: Ikerketa Laborategiaren bisita
Infragorri espektroskopia
10:30: Esperimentua Kimika Analitikoko Laborategian
Semaforo kimikoa


11:20: Agurra
Kimika Fakultateko Ekitaldi Aretoa

Bisita oso ongi joan zen, eta jardueran parte hartu zuten guztien balorazioa oso positiboa izan zen. Jardunaldi polit honen argazkiak behean daude ikusgai.



Bigarren hezkuntzako ikasleentzako Orientazio Jarduerak


Kimika Zuretzat: UPV/EHU eta Eusko Jaurlaritzaren artean elkarlanean antolatutako jarduera da eta Batxilergoko lehen mailako ikasleei zuzendua. Aurten urtarrilaren 13tik 22ra bitartean ospatu zen, eta guztira 82 ikaslek eta Fakultateko 36 bolondres inguruk hartu zuten parte, irakasle, laborategiko teknikari, ikasle eta ikertzaileak barne, hiru orduko 12 saiotan banatuta.



EHUazoka: UPV/EHUK Gipuzkoa, Araba eta Bizkaiko Campusetan antolatzen duen orientazio azoka da. Fakultateak stand batekin parte hartu zuen, non Kimikako Graduari, Fakultateari eta 50. urteurrenari buruzko informazioa banatu zen. Horretaz gain, Gradua eta Fakultatea aurkezteko hitzaldiak egin ziren horretarako prestatutako geletan, hauek jendez gainezka zeudelarik.




Ibilbide Profesionalak: Ekimen honek gure ikasle ohien ibilbide profesionalaren adibidearen bitartez kimikak gizarteko arlo askotan duen garrantzia erakutsi nahi du. Horrela, kimikako ikasketek eskaintzen dituzten lanbide-aukerak ere ikusarazi ahal izango dira. Irudian, dagoeneko webgunean ditugun 30en adibide batzuk ikus ditzakezue (egin klik [hemen](#) osorik ikusteko). Ekimen hau urte osoan zehar zabalik egongo da zerrenda hazten joan dadin.

	<p>Izen – Abizenak: Yosú Vara Salazar</p> <p>Ikasketak: Licenciado en Química (2003), Doctor en Química (2008)</p> <p>Ibilbide Profesionala: Director Químico y socio fundador de Ikerchem (2008-2014) Promotor Ikerpharma, germen de Quimatrix (2014).</p> <p>Gaur egun: Director Químico y de Producción, socio fundador y conserejo de Quimatrix (2015-?). Director Químico de Oncomatrix (2017-?)</p>
	<p>Izen – Abizenak: Ainara Saralegi Otamendi</p> <p>Ikasketak: Kimikan Lizentziatua; Material Berriztagarrien Ingeniaritzan Masterra Material Berriztagarrien Ingeniaritzan Doktorea; Irakasleen Prestakuntzarako Masterra</p> <p>Ibilbide Profesionala: Doktoretza ondoko ikertzailea (Bragança, Portugal, 2014; Virginia, USA, 2015-16) Bitarteko Irakasle Kontratatua Zientzia eta Teknologia Fakultatean UPV/EHU (2017); Ikertzailea, TECNALIA (2018) ; Irakasle Atxikia Gasteizko Ingeniaritza Eskolan UPV/EHU (2019-21)</p> <p>Gaur egun: Irakasle Agregatua Gipuzkoako Ingeniaritza Eskolan UPV/EHU</p>
	<p>Izen – Abizenak: Ainhoa Alonso Alkain</p> <p>Ikasketak: Kimika Zientziak Petromikika</p> <p>Ibilbide Profesionala: Ingurumen Teknikaria admnistrazio publikoan, Ingurumen teknikari: Goiekin (2002-2004), Laia s.coop. (2004-2006), Tolosakdeko Mankomunitatean (2006-2008)</p> <p>Gaur egun: Ingurumen teknikari Ibarra Udal (2009 - ?)</p>
	<p>Izen – Abizenak: Ana Belén Benito Collado</p> <p>Ikasketak: Kimikan Lizentziatua (1998); Kimika Organikoan Doktorea (2004) DBH eta Batxilergoko, LH eta Hizkuntzen Irakaskuntzako Irakasleen Prestakuntza Unibertsitate Masterra (2012)</p> <p>Ibilbide Profesionala: Research Associate and Senior Research Associate-Eli Lilly (2002-2011). Ikertzailea-CIDETEC (2012-2018)</p> <p>Gaur egun: Lanbide-Heziketako Irakaslea-CIEP Don Bosco LHII (2020-?)</p>

Ikerketa Jarduerak

Biogipuzkoara egindako bisita: Urtarrilaren 31n Kimika Fakultateko ikertzaileek Biogipuzkoako instalazioak bisitatu zituzten. Bisita honetan Fakultatean garatzen ari diren ikerketa-ildo desberdinak labur-labur aurkeztu ziren, Biogipuzkoako ikertzaileekin sinergiak bilatuz.





The Chemistry Faculty visits
Biogipuzkoa
Salón de actos of Biogipuzkoa HRI
January 31st, 2025

Program	
12:00	Welcome
DESIGN, SYNTHESIS AND CHARACTERIZATION OF THERAPEUTIC/THERAGNOSTIC CHEMICAL ENTITIES.	
12:10	Photoactivation strategies for metalodrugs. Dr. Luca Salassa
12:15	X-rays to probe the biological life of metals. Dr. Carlos Sanchez
12:20	On the Possibility of Radical Covalent Inhibitors. Dr. Daniel Reta
12:25	Computational drug design. Dr. Eider San Sebastian
12:30	Metal Catalysis toward the LAta-Stage C-H Functionalization of Peptides. Dr. Arkaitz Correa
12:35	Preparation and Characterization of Photoluminescent Coordination Compounds with visible and Near-Infrared Emission. Dr. Javier Cepeda
12:40	Exploiting catalysis from small molecules to enzymes. Dr. Rosa + Dr. Enrique Gomez Bengoa
FROM ENZYMES TO WHOLE CELLS AND THEIR METABOLISM	
12:45	Growth, development and bioactivity of filamentous fungi. Dr. Oier Etxebeste
12:50	Modelling at the interface between medicine and biophysics. Dr. Xabier Lopez + Dr. David de Sancho
DESIGN, SYNTHESIS AND CHARACTERIZATION OF DRUG DELIVERY SYSTEMS	
13:00	Solid lipidic nanoparticles to improve antibiotic efficiency. Dr. Lide Arana
13:05	Polymeric materials for biomedical applications. Dr. Marcelo Calderon
13:10	Polymeric tools to stabilize and deliver therapeutic proteins. Dr. Ana Beloki
NETWORKING	
13:30	3 rd floor.


Datozen asteetan, Biogipuzkoak Fakultatera itzuliko du bisita, beraien ikerketa ildoak gurean aurkezteko. Ikerketa-jardunaldi hauek 50. urteurrenaren ikerketa jardueren barruan kokatzen dira, inguruko ikerketa-eragile guztiekin loturak sendotzeko asmoz.

Egun honetako argazkiekin (ikusi hurrengo orrialdea) otsaileko laburpena arte agurtzen gara. Espero dugu laburpen hau interesgarria iruditu izana eta urtean zehar programatutako ekintzetan parte hartzera animatzea.



Kolaboratzaile eta patrozinatzaileak

- UPV/EHUko Gipuzkoako Campuseko Errektoreordetza
- UPV/EHUko Zientzia eta Gizarte Garapenaren eta Transferentziaren arloko Errektoreordetza
- UPV/EHUko Euskara, Kultura eta Nazioartekotzearen arloko Errektoreordetza
- UPV/EHUko Ikerketa Errektoreordetza
- UPV/EHUko Kultura Zientifikoko Katedra
- Donostia Kultura
- Bergarako Laboratorium Museoa
- Emakumeak Zientzian
- Jakiunde: Zientzia, Arte eta Letren Akademia
- Ikerbasque: Basque Foundation for Science
- Donostia International Physics Center
- Centro de Física de Materiales / Materialen Fisika Zentrua
- POLYMAT
- CIC BiomaGUNE
- CIC NanoGUNE
- IIS BioGipuzkoa
- Euskal Herriko, Burgos eta Errioxako Kimika eta Ingeniaritza Kimikoaren Elkargo Ofiziala
- Real Sociedad Española de Química
- Real Sociedad Española de Química. Euskal Autonomia Erkidegoko Lurralde Atala
- Udako Euskal Unibertsitatea UEU Universidad Vasca de Verano
- Colegio SUMMA Aldapeta Ikastetxea
- CIFP Don Bosco LHII



- Tolosaldea LHII
- Elhuyar Fundazioa
- La Mecánica del Caracol irratsaioa